

Bizigiro

Loratu da sagardo garaia

Usain onekoa, txinpartaduna, edan erraza eta orekatua izango da aurtengoa. 'Loreak' filmeko Itziar Ituño, Itziar Aizpuru eta Nagore Aranburu aktoreak izan ditu amabixki txotx garaiaren hasierak.



Ainara Arratibel
Gascon



Nagore Aranburu, Itziar Ituño eta Itziar Aizpuru sagardo garai berrira irakizten. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

2015eko urtarrilak 15



Hau da gure sagardo berria». Sagardozaileek urtero desio dituzten hitz horiek esanda, abian da atzotik aurtengo txotx denboraldia. Iaz hiru aitabixki izan zituen, eta aurtengoa hiru amabixki izan ditu sagardo garaia hasteko ekitaldiak: *Loreak* filmeko hiru aktore protagonistak. Itziar Ituño, Itziar Aizpuru eta Nagore Aranburu sariak eta hautagaitzak jaso eta jaso ari dira, baina ihusio bereziz eskertu zuten sagardogileen aldetik jasotakoa. «Azken batean, gure jendearen aldetik jasotako ohore bat da». zioen Itziar Aizpuru. Hilabeteetan mimoso ekotzitako sagardoa upeletan da, jendearen ezarriak gozatu eta freskatzeko.

Tradizio eta erritu handiko ekitaldia da Astigarragako (Gipuzkoa) sagardo garaia hasiera ematen diona, eta atzokoan ere hala izan zen. Lehenbizi, aurtengoa dastatu ahal izango den sagardoaren ezaugarrien berri eman zuen Jose Angel Goñik, Sagardun elkartearen lehendakaria. «Edan erraza, hori-berdexka, usaingaria, txinpartaduna eta izakoa baino orekatuagoa izango da, edatean ahoan semtsazio borobitak uzten dituen». Uda fresko eta hezeak horretan lagundu zuela nabarmendu zuen. «Azukre kontzentrazio egokia ahalbidetu zuen, eta horrek ekarri du zukua arina eta freskagarria izatea». Guzura hamar milioi litro sagardo ekotzi dituzte, %45 bertako sagarrek in egindakoa. «Kopuru aldetik uzta oso ona izan bada ere, barietatean arbera irregularra izan da. Eskualdeen artean ekotzi penasa oso desberdina izan da, baina sagasti bakoitzaren barruan ere. Askotan fruiturik gabeko barietateak ikusi dira, eta ondorioz, sagar ugari barietateak». Sagastien kopurua, dena den, gora doa urtetik urtera. Iaz, 20.150 sagarondo landatu ziren. Horietan 80.000 dira azken bost urteetan landaturakoak. Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Astigarragako Udaleko ordezkariak sagardoak bertako ekonomian eta turismoan duen garrantzia nabarmendu zuten, sagardogileen lana eskertzearekin batera. Aste Gartzia Astigarragako alkateak gonbita egun zien sagardozaileei denboraldian Astigarragara bertaratzeko. «Disfruta dezatela, betiere errespetuz jokaruta. Eraso eta isturik gabeko denboraldia izatea nahi dugun».

Landaketa eta irakitzera

Sagastiei lotutako izan zen bigarren eritua. Izan ere, aurrekoetan bezala, hiru amabixkiek sagasti bat landatu zuten. Gogotsu hartu zuen Aranburuk aitzurra, eta haren lekukoa hartu zuen ondoren Ituño. «Ez nago oihututa gauza hauetara», zioen irribarrez. Aizpuru jarri zion errematea. «Datorren urtean ikusiko dugun ea zer moduz egin duzuen», esan zion irribarrez Goñik. Amets Arzallusek eta Maialen Lujanbioeren bertsoek jarri zioten doinu ekitaldiari. «Zeluloidea eta lur azalak berdinak dira, fruituak ematen ditu ondo landutako lanak», kanratu zion Lujanbiok. Hain zuzen ere, horri egin zion erreferentzia omenduetako batek, Nagore Aranburuk, bere esker hitzeran. «Entzun eta entzun ari gara sagardo denboraldiak jende askoren lana eskertzen duela. Film batekin ere berdin gertatzen da. Gu gara gaur hemen gaudenak, baina aitortza hau lan talde guztientzat da».

Eritua nagusia falta zen oraindik, eta, horretarako, Berezartua sagardotegira abiatu ziren. Han zituzten zain txalapartariak eta dantzariak. Aurtengo beritasuna horixe zen. Ikerfolkek eta *Danza.com*-ek sortuta, atzo aurkeztu zuten txotx irekierarako eritua koreografikoa. Txalapartarien deiarekin batera, dantzariak Arizkongo sagar dantza dantzatu zieten hiru omenduetan. Hunkituta sumatu zitzaizkien orduan hirurei. Are gehiago, sagardogileek egindako sokadantzarekin batera, sagardotegira sartu zirenean.

Azkenean iritsi zen ordua. Hirugarren eritua, garrantzitsua. Upelela gerturatu, eskuan zeramaten edalontzia sagardoz bete, hasek goratu eta ozen esan zuten hirurek: «Hau da gure sagardo berria». Horietan batera busti zuten ezarria. Berehala, inguruan zeuden sagardozaile eta sagardogileak upelela gerturatu ziren sagardo berria probatzera. Artean hiru protagonistak pozik zenden. «Ez naiz oso aditua, baina oso goxoa dago», zioen Ituño. Hunkitu ere egin zen. «Sagardoak euskara gogoratzen dit. Basauritik maiz etortzen nintzen euskaltegiekoekin. Mingaina askatzen eta euskaraz hitz egiteko lotsa galtzen lagundu zidan sagardoak. Nire euskalduntze prozesuarekin oso lotuta dago, beraz. Oso berezia da hau niretzat», gogoratu zuten.

Sagardoa gustukoa izan arren, sekula sagardotegi batean egon gabea zen Aizpuru. «Ez da nire adinek jendea egoteko leku bat. Broma, aparte, ni Getariakoa naiz, eta gogoan ditudanak etxeetako sotoetan zeuden upelak dira. Aitona han egoten zen. Dena den, gustuko dudana edaria da sagardoa. Gradu gutxi ditu, eta erraz hartzen da». Desio bat ere eskatu zuen. «*Loreak* izaten ari den adinako arrakasta izan dezala aurtengo sagardo garaia». Lehen gehiagotan joan arren, denboraldi egiten du osteratxoren bat handik Aranburuk. «Sekula ez nuen imajinatuko denboraldia zabaltzen ariko nintzenik. Oso gonbidapen ederra da. Hala ere, aitortzeko filmak izandako harrera onaren seinale dira, eta oso pozgarria da». Hirurek nabarmendu zuten txotx denboraldia emakumezkoek zabaltzearen garrantzia. 22 urte hauetan bik baino ez dute ohore hori izan: Joane Somarriba txurridulari ohiak (2001), eta Amhóa Arreta sopranoak (2005). Gero, gonbidatu guztiek sagardotegi menua dastatu zuten.

Irakurle agurgarria:



Gehien irakurriak

1 Askatasunez jantziak

KER TURBIA

2 «Itxi duten kanpalekuan gauza oso larriak gertatu dira»

JONE DASTIDA ALZURU

3 Esklaboak 5.0

GINNITZA ENBETA

4 Pantailan

ANDONI EGANA

5 Akerra

ANDONI EGANA

